

## Eibar-ko euskal festak

### EUSKAL-ITZ JOSTALDIEN EGINTZA

**E**USKAL-itz jostaldien Batzarrea dator gaur Eibarra, kontu ematera leku ontan arkitzen diran entzule guztian, zer nolakoa dan, aurtan, izkribatzalle, musikalaria, eta pintatzaileen indar-neurtzetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia.

Arreta aundiz ikusi ondorean aurkestu diran moldaera guziak, irabazi dituzte sariyak, izkribatzaileen artean:

Gregorio Mujika, Karmelo Echegaray, Abelino Barriola eta Ramón Inzagaris jaunak. *Eibar-ko seme ospatzen berri batzuek*, *Domosti-ko Euskal-itz jostaldien Batzarrea*, *Meza berriya* eta *Paza atozkil* izendatutako lan egokiagatik.

Irabazi dituzte aldeerak: Inazio Pradere eta Ramón Gelbenzu jaun andriak, *Eibar-ko seme agidatarrak* eta *Betiko pena* izentzat dituztenen gatik.

Irabazi dituzte bina aipamen onragarri: José Elizondo eta José Inazio Garmendia jaunak; lenbitzikoak *Eibargutikan* eta *Gaon* izendua gatik, eta bestiak *Gipuzkoa-ko, euskerazko itz-jostaldien Batzarrearen bir osaera* eta *Lunaren goimenak* izentzat dituztenen gatik. Aipamen onragarri bana Enrike Elizecha, Jerónimo Elizegi eta José Olaizola jaunak, *Ordikeria*, *Soilmena* eta *Markesa'ren alaba* izenekoa gatik.

Indar-neurtzez kanpora saritu da *Erderaz eta euskeraz itz egiteko eskutiburua*, Isaak Lopez Mendizabal jaunak egiña, eta Euskal errirako biar biarrekoa Batzarreak arkitu dubena.

Musikalarien artian irabazi dituzte sariyak José Maria Usandizaga eta Inazio Bereziartua jaunak *Euskal testura* eta *L'atillaren 22<sup>na</sup>* azalkaitzat dituzten moldaeragatik.

Pintatzaileen artian irabazi dituzte: lenengo saria Elias Salaverria; bigarrena Mauro Ortiz de Urbina eta irugarrena Luis Armengou jaunak. Beren lanen izenak dira: *«Vere Anayah»*, *«Lartaun»* eta *«Gaztañak erretzen»*.

Antzetzalarien artian sarituba izan da Juan Bautista Larreta jauna, *«Talo l'csne julien alde»* azalkaitzat dituztela aurkestatu dituben antzera jator eta egokiagatik.

Bigarren sariya irabazi du Migel Agirre jaunak *«Vere lanak»* izentzat duten antzeztan gatik.

Eibarren, 1908<sup>ko</sup> Agorrillaren 6<sup>an</sup>

ALFREDO DE LAFFITTE Y OBINETA.

*Dianagusia.*

TORIBIO ALZAGA

*Goarpeletaria.*

